



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Mariak gauza hauek guztiak bihotzean gordetzen dituela”

2024ko urtarrilaren 1a  
Andre Maria, Jainkoaren Ama (B)

### Lukas 2, 16-21

Aldi haretan, artzainak lasterka joan ziran, eta han aurkitu ebezan Maria eta Jose eta umea askan etzunda. Ikusi ebenean, jakinazo eben ume haretaz esan jakena.

Entzun eben guztiak harrituta gelditu ziran artzainek esaten ebenagaz. Mariak, barriz, gogoan jasoten zituan gauza guzti honeek, bere bihotzean hausnartuz.

Eta artzainak Jainkoari aintzaka eta goraka bihurtu ziran, entzun eta ikusi ebenagaitik; dana aingeruak esanda lez jazo jaken

Jaio eta zortzi egunera umea erdaindu ebenean, «Jesus» ezarri outsoen izena, sabelean sortu aurretik aingeruak esan eban lez.

Joan ziren lasterka eta han aurkitu zituzten Maria, Jose eta jaioberria askan etzana. Ikusi zutenean, haurtxo hartaz esan zitzaiena kontatu zuten.

## GAUR

Jose Antonio Pagola

Jesusen jaiotzaren kontakizuna honela bukatzen du Lukasek: irakurleei adieraziz «**Mariak gauza hauek guztiak bihotzean gordetzen dituela**». Ez du gordetzen gertatua, iraganeko zenbait oroitzapen bezala, baizik bere bizitza guztian eguneratuko eta berbiziko duen esperientzia bezala.

Ez da funtsik gabeko oharpena. Fede-eredu dugu Maria. Ebanjelari honen iritziz, Jesus Salbatzaileagan sinestea ez da aspaldiko garai bateko gauzak gogoratzea, baizik haren indar salbatzailea gaur esperimentatzea, gure bizitza gizatarrago egiteko gai dela esperimentatzea.

Horregatik, baliabide literario berezi-bereziaz baliatzen da Lukas. Jesus ez da iraganeko norbait. Nahita errepikatzen du ezen Jesus berpiztuaren salbazioa «**GAUR**» berean ari zaigula eskaintzen, harekin topo egiten dugun bakoitzean. Hona adibide batzuk.

Honela iragartzen digu Jesusen jaiotza: «Daviden hirian Salbatzaile bat jaio zaizue **gaur**». Gaur ere jaio daiteke Jesus guretzat. Gaur sar daiteke gure bizitzan eta alda dezake betiko. Bizi berrira jaio gaitzke harekin.

Galileako herrirka batean ezindu bat ekarri diote Jesusi. Hau hunkitu egin da, hura bekatuak blokeaturik ikustean, eta sendatu egin du barkazioa eskainiz: «Barkatuak dituzu zeure bekatuak». Jainkoa goratuz erreakzionatu du jendeak: «Gauza harrigarriak ikusi ditugu **gaur**». Guk ere esperimeta dezakegu barkazioa, Jainkoaren bakea eta barneko poza, Jesusi senda gaitzan uzten badiogu.

Jeriko hirian, Jesusek Zakeoren etxean hartu du ostatu, zerga-biltzaile aberats eta boteretsu haren etxean. Jesusekin topo egiteak erabat eraldatu du Zakeo: hainbat jenderi lapurtua itzuliko du eta pobreekin partekatuko bere aberastasunak. Jesusek diotso: «**Gaur** salbazioa iritsi da etxe honetara». Jesusi geure bizitzan sartzen uzten badiogu, gaur berean hasi ahal izango dugu geuk ere biziera duin, haurride arteko eta solidario bat.

Jesus hilzorian da gurutzera, bi gaizkileren artean. Haietako batek konfiantza hartu du Jesusengan: «Jesus, gogora zaitz zeure erreinuan izango zarenean». Bat-batean erreakzionatu du Jesusek: «**Gaur** nirekin izango zara paradisuan». Gure heriotzako ordua ere salbazio-eguna izango da. Hainbeste espero genituen hitz hauek entzungo ditugu azkenean: hartazazu atseden, izan konfiantza nigan, **gaur** nirekin izango zara, eta betiko.

Gaur urteberria hasi dugu. Baina, zer izan daiteke guretzat zerbait berri eta on? Zeinek jaiotaraziko du guran poz berri bat? Zein psikologok irakatsiko digu gizatasun handiagoko izaten? Ezer gutxirako dira desio onak. Guran erretzen den gauzarik hoberenerako esna bizitza da garrantzia duena. Egunero eskaintzen digu Jainkoak salbazioa. Ez da zertan ezereen zain egon. «Gaur» hau bera izan daiteke niretzat salbazio-egun.